



Idazle sopelarraren “Itzalkinak eguzkitan” proiektua saritu du epaimahaiak eta gune turistiko batean lan egiten duten bi emakumezkoen bizikizunei buruz hitz egiten du

Iazko irabazleak, Olatz Mitxelenak, liburua amaitu du eta sariaren bigarren zatia jaso du. Datorren udaberrian argitaratuko da liburua

Edizioak adina urte dituen idazle gazte sopelarra da Lizar Begoña Madariaga eta Igartzako jauregian burutu den sari emate ekitaldian Itzalkinak eguzkitan proiektuarengatik aurtengo irabazlea izan da Oihane Amantegi, Irati Jimenez eta Garazi Kamio epaimahaikideek adostuta.

Hogeita bosgarren edizioa bete du Beasaingo Udalak, Elkar argitaletxeak eta CAF enpresak, idazle gazteak laguntzeko antolatzen duten beka honek. Lizar Begoñak proiektuarengatik 6.000 euroko sariaren erdia eta garaikurra jaso ditu antolakuntzako ordezkarien eskutik eta urte beteko epea izango du liburua amaitzeko.

Egileak azaldu duenez, liburu bihurtuko den proiektuak Benidormera garamatza: gune turistikoetan kokatutako kiosko bat da gertalekua, eta

bertan lan egiten duten emakumezko bi dira protagonistak. Gainbehera datorren negozioa, inguru kitsch bat, bi belaunalditako andrazkoen bizikizunak... gertakizun hauekin batera josiko dira emozio, oroitzapen eta hausnarketak.

Lizar Begoña Madariaga, 1996an Sopelan jaio eta bertan bizi da. Arte Ederretan graduatua da eta euskara-eskolak ematen ditu lanbidez. 2020an kaleratu zuen bere lehenengo liburua, Aro beilegia poesia-bilduma (Balea zuria), Donostia Kultura saria irabazitakoa, eta 2022an argitaratu du bigarrena, Gepardo japoniarrak (Susa), hau ere poesiazkoa. Orain garatuko duen proiektuarekin jaso du narratibazko lehen saria.

Gazteen sorkuntzarako motibagarri

Igartzako jauregian egindako aurkezpenean, egile sarituaz gain, Beasaingo alkatea Leire Artola, Elkar argitaletxeko Xabier Mendiguren eta CAF enpresako euskara arduradun Bianditz Iraola izan dira. Artola alkateak eskerrak eman dizkie CAF-i eta Elkar Argitaletxeari idazle gazteen lanaren sustapenean ahalegindu eta laguntza emateagatik eta aurtengo irabazlea zoriondu du. “25. edizio honetara iritsita, Beasaingo Udalarentzat Igartza Literatura Bekak egin duen bidea harro egoteko modukoa da. Gazteen sorkuntzarako motibagarri eta arnas izan nahi du gure beka honek eta euskal literaturarentzat ekarpena gure hizkuntza hilezkor izaten laguntzeko” aipatu du Artolak. “25 edizio hauetan euskal literaturaren munduan finkaturiko idazleen zerrenda luzeak osatzen du Igartza Literatura Bekaren irabazleak. Horien artean daude egun sona handiko idazle ospetsuak. Beasain izena euskararen izanarekin lotuz euskararen aldeko gure apustu garbia ukaezina da eta tinko eusten jarraituko diogu helburu honi” azpimarratu du.

25. edizioa ospatzeko ekitaldia

Ez da gutxi 25 edizio betetzea eta hori nolabait ospatzeko Igartza Literatur beka-sarian saritutako liburuetako pasarteetan oinarrituta bertso-saio literario musikatua gozatzeko aukera izango da urriaren 8an, arratsaldeko 19:00etan Igartzako jauregian. Ekitaldi horretan parte hartuko dute Miren Amuriza eta Uxue Alberdi bertsolariak. Testuen hautatzailea eta gai jartzailea Kattalin Miner izango da. Hirurak izan dira Igartza sariduna. Saioa musikatzeko lanetan, berriz, Gari Otamendi (biolina) eta Araitx Bizkai (gitarra) izango dira.

Aurtengo edizio honetara 11 lan aurkeztu dituzte; horietatik 7 gipuzkoarrak eta 4 bizkaitarrak. Oinarriak argitaratzen direnean saiakera egiten da Euskal Herri osora zabaltzen. Generoari dagokionez 4 emakumezkoak dira eta 7 gizonezkoak. Sariak 6.000 euroko laguntza eta lana argitaratzeko konpromisoa dakartza.

Bestalde ekitaldi berean, iazko irabazleak, Olatz Mitxelena Larretak, dagoeneko liburua amaitu du eta sariaren bigarren zatia jaso du. Datorren udaberrian argitaratuko da liburua.

Idazle gazteen sorkuntza-lana saritzea

Igartza Literatura beka saria Beasaingo Udalak idazle berrien sormena bultzatzeko helburuarekin sortu zuen. Baldintza nagusiak, 35 urte bete gabe izatea, aurretik lan argitaraturik izatekoetan helduentzako bi liburu baino ez izatea eta lanak jatorrizkoak eta euskaraz sortuak izatea dira.

Orain arteko irabazleak:

LIBURUA	IGARTZA SARIA	URTEA	ARGIT. URTEA	EGILEA
TUBABU	I. ^a		1994	Jon Arretxe Perez
CONNEMARA GURE	I. beka	1998	2000	Julen Gabiria
BIHOTZETAN				Lara
EGUN DENAK EZ	II.beka	1999	2001	Xabier
DIRA BERDIN				Etxeberria Garro
KORAPILOAK	II.	1999	2001	Jasone Osoro
	bekaacesit			Igartua
ORTZADARRA	III.beka	2000	2002	Fernando
SUTAN				Morillo Grande
VAN'T HOFFEN	IV.beka	2001	2003	Unai Elorriaga
ILEA				Lopez de Letona
HAN GOITIK	V.beka	2002	2004	Julen Gabiria
ITSASOA				Lara
IKUSTEN DA				
KARONTE	VI.beka	2003	2005	Asel Luzarraga
				Zarrabeitia
AMAREN ESKUAK	VII.beka	2004	2006	Karmele Jaio
				Eiguren
LILE	VII.	2004	2006	Peru Magdalena
	bekaacesit			Arriaga
AULKI BAT	VIII.beka	2005	2007	Uxue Alberdi
ELURRETAN				Estibaritz
ERO	IX.beka	2006	2008	Jon Martin
				Etxebeste
HABITAT	X.beka	2007	2009	Katixa Agirre
				Miguellez
NORA EZ	X. bekaacesit	2007	2009	Irati Jimenez
DAKIZUN HORI				Uriarte
KATU JENDEA	XI.beka	2008	2010	Eider

Lizar Begoña XXV. Igartza literatura bekaren irabazlea

Azken eguneratzea: Osteguna, 08 Iraila 2022 11:23

Argitaratua: Azteazkena, 07 Iraila 2022 21:04

LIBURUA	IGARTZA SARIA	URTEA	ARGIT. URTEA	EGILEA
				Rodriguez Martin
MEA CULPA	XII.beka	2009	2011	Uxue Apaolaza Larrea
BESTE NORBAITEN ZAPATAK	XIII.beka	2010	2012	Garazi Kamio Anduaga
GELTOKIAK EDO HELDUTA ENTZUTEKO ABESTIAK ERRAIAK	XIV.beka	2011	2013	Goiatz Labandibar Arbelaitz
	XV.beka	2012	2014	Danele Sarriugarte Mochales
EZ TIRO EGIN ANBULANTZIEI	XVI.beka	2013	2015	Mikel Ayllon Corral
HAUTS HAJETATIK	XVII.beka	2014	2016	Unai Villena Camarero
NOLA HELDU NAIZ NI HONAINO	XVIII.beka	2015	2017	Kattalin Miner Perez
ZALDI MAMARROA	XIX.beka	2016	2018	Ekaitz Goienetxea Cereceda
BASA	XX.beka	2017	2019	Miren Amuriza Plaza
ZENDABALITZ	XXI.beka	2018	2020	Erika Elizari Salvador
HERRIAK EZ DU BARKATUKO	XXII.beka	2019	2021	Irati Goikoetxea Asurabarrena
EZ ERRAN INOR	XXIII.beka	2020	2022	Maddi Ane Txoperena Iribarren
ARRAIN HEZUR BAT EZTARRIAN	XXIV.beka	2021	2023	Olatz Mitxelena Larreta
ITZALKIAK EGUZKITAN	XXV.beka	2022		Lizar Begoña Madariaga

Lizar Begoña XXV. Igartza literatura bekaren irabazlea

Azken eguneratzea: Osteguna, 08 Iraila 2022 11:23

Argitaratua: Azteazkena, 07 Iraila 2022 21:04



Saritua Leire Artola

alkatearekin



Olatz Mitxelenak
bekaren bigarren zatia jaso zuen Bianditz Iraolaren (CAF) eskutik

Lizar Begoña XXV. Igartza literatura bekaren irabazlea

Azken eguneratzea: Osteguna, 08 Iraila 2022 11:23

Argitaratua: Azteazkena, 07 Iraila 2022 21:04



Urte beteko epea izango du
irabazleak proiektu irabazlea liburu bihurtzeko



Lizar Begoña Madariaga